

Azken urte hauetan, kirol gipuzkoarraren www.kirolak.net ataria, komunikagarriagoa, funtzionalagoa eta iristerrazagoa bilakatu dugu. Bertatik, AFEDEGIk eta GIPUZKOAKO FEDERAZIOEK eguneratzen dituzten Gipuzkoako kirolaren emaitzak eta sailkapenak kontsulta daitezke era intuitibo eta errazean.

Atariak arrakasta bikaina lortu du eta horren adibide dira hilabete batean lortutako 80.000 bisitariak, grafikoan ikus dezakezuenek.

Federazioek, www.kirolak.net web-orriarekin erabat lotuta dagoen neurrira egindako lehiaketen web-aplikazioa dute. Horren bidez, lehiaketak sortzeaz gain, baimena duen edozeinek emaitzak gertatu ahala, berritu egin ditzake.

“Lehiaketak” sailean ESKOLAKo eta kirol FEDERATUKO asteburuko emaitza eta sailkapenak kontsulta daitezke. Emaitza gehienak, larunbatean bertan edo igandean, lehiaketa egiten den egunaren arabera, eskuragarri egoten dira. Halaber, federazio gehienak beren modalitateari buruzko informazioa eguneratzen ari dira, bai lehiaketa atalean bai argitaratu beharreko dokumentazioari (araudiak, jakinarazpenak, eta interesa duten beste zenbait dokumentu) dagokionean.

KIROLAK.NET web-orriak asteburuko kirol egutegiak eskaintzen ditu, egutegiak, emaitzak eta Gipuzkoako oinarrizko kirolari buruz beste edozein komunikabidetan topatzen ez dena. Gaur egun, beste zenbait modalitatearen artean asteburuan bertan ondorengo kirolen emaitzak eta sailkapenak ikus daitezke %100ean: futbola, saskibaloia, areto futbola, igeriketa, xakea, hockey, errugbia, etab.

Horiez gain, maila gorenetan aritzen diren Gipuzkoako taldeen emaitzak ere eskuragarri egoten dira, lehiaketa amaitu bezain laster. Informazio hau, “Estatuko ligak” atalean egoten da.

Gainera, kirola eta gizartea, foroak, albisteak, agenda, ikastaroak eta kirolari buruzko zenbait web-orritara estekak; eta direktoriotik Gipuzkoako Foru Aldundiaren kirol sailak mantentzen dituen kirol instalazio eta klubentzako datu baseetan sar daitezke.